

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2011ko maiatzaren 6a
298. zenbakia. 23. urtea



Abiapuntua, Orio

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa Orion hasiko da igandean. Lau bertsolari oriotarrek hartuko dute parte: Esoain, Sukia, Eizagirre eta Gurrutxagak

05

Orioko kontuak
Hauteskundeak

07

Orioko kontuak
Baiaeren Eguna

10

Aiako elkarrizketa
Aitor Hoyos

25

Herritarra
Monique Nogueira



orain
oriotko aukera independentea

**oriotarron garaia da
orain duzu aukera**

**herriak erabaki dezan
aukera guztiak hauteskunderetan**



bozkatu
vota

**EAJ
PNV**
jakin eta erin
saber' hacer

Aia Aia Aia

**ONENA EMATEKO GARAIA
EL MOMENTO DE DAR LO MEJOR**

Santakutzetan elorriak loretan

1

Santakutzetan udaberria ta elorriak loretan, halaxe biltzen dira kristauak herritako ermitetan. Moztu ezin diren bizi ametsen fedezko esperantzetan, bizi kimuak, arnas biziak bilduko diren pozetan.

2

Maiatzak hiru, baserritarrak nahiz kaleko fededunak, eliz atera bildu ohi ziren utzita eginkizunak. Gure herriak nahiz eta bizi sarri aldarte ilunak, sinisten dugu, argituko du egia etorkizunak.

298

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea
Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria
Ana G. de Txabbarri

Erredakzio burua
Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldea
Pat Cowie,
Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea
Pat Cowie

Publizitatearen diseinua
Lore Berasaluze

Testuen zuzenketa
Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak
Arantxa Arrillaga, Nerea
Azpiaza eta
Unai Manterola

Laguntzaileak
Jon Agirresarobe

Diseinua
Karkara taldea

Banatzaileak
Ander Beldarrain eta
Ane Murillo (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.050 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



ANA G. DE TXABARRI

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin
(695 78 07 20) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Torrotxo eta Beñat

Oriotarrek lo lasai egin dezakegu hemendik aurrera, ze Beñat eta Torrotxo Udalean izango ditugu.

Oso ondo iruditzen zaigu erabaki zail hori hartu izana. Pentsatu nahi dugu oriotarren onerako izango dela. Hala ere, erabaki horren berri ematean, eskertuko genuke, tartean, berek dituzten helburuak jakinaraztea ere. Baina hori egiteko ez dago zergatik Redondo edota EAJ, eta ondorioz alderdikideak, iraindu beharrik.

Beraiek asko egingo zuten eta asko egiteko asmoarekin egongo dira, baina badaude asko egin dutenak ere, eta oso ondo, eta berdin jarraitzeko asmoz daudenak eta horien artean EAJkoak daude. *Ze ondo eraikitzen ari den Orioko herria*. Esaldia bai herritarrei eta baita kanpotik etortzen diren askori ere entzun diegu.

Kirol esparruan, kiroldegia, frontoia, futbol/sofbol zelaia, arraun instalazioak, Muntoko kirol instalazio berriak... oso ondo dago Orio. Hezkuntza/Kulturaren Ikastola (Euskal Herriko ikastola guztietatik Orioko Ikastola da Udaletik diru gehien jasotzen duenetakoa), Zargaeta eskola, mojak eta haurtzaindegia, ondo baino hobeto ari dira lanean. Zer esanik ez, inguruan parekorik ez duen Danbolin Musika eskola daukagu (bertakoak ez ezik, inguruko herritakoak ere etortzen dira klaseak hartzera), kultur etxea liburutegi eta guzti eta ez genuke ahaztu nahi Kosta Tailerrean musika, dantza eta abarretarako prestatutako eraikuntza...

Autopistarako sarrera zuzena jarri digute eta tren geltoki berria daukagu. Azken lau urteetan Orion 175 etxebizitza egin dira, horietatik 39 tasatuak eta 36 babes ofizialekoak, hau da, % 43 nolabaiteko babesaren duten etxeak, 48.000 metro koadroko industria-eremua egiteko lur antolamendua abian jarri da.

Jubilatuak azken batzarrean entzun genuen oso gustura zeudela Udalaren laguntzekin eta, bereziki, Noemik eta Jon Redondok eskaintzen dietenarekin.

Aurrekoa gutxi balitz, lana egin nahi badute, ekonomikoki oso ondo dagoen Udala aurkituko dute, gure alderdikideek, Jon Redondo buru dutela, oso gestio ona egin dutelako. Krisi garaian zorrik ez duen Udala da Orio, eta hori hemen, Aian eta beste hiru udaletan bakarrik gertatzen da.

Lanerako, borondate onak bakarrik ez du balio, dirua ere behar da; esaera zaharrak dioen bezala gertatu liteke bestela *Urrutiko intxaurrek hamalau, bertaratu eta lau*.

Hori guztia norbaitek egin du eta asko dira EAJko alderdikideak, Jon Redondo tarteko, eta horiek *bilera amaiezinak eginez, etxekoei eta lagunei orduak lapurtuz, ardurei erantzunez, konpromisoak hartuz*.

Beraz, badira orain arte lanean ondo aritu direnak, eta badira, baita ere, ilusioz lanerako prest daudenak. Mesedez, begirunea horientzat ere. ■ **Orioko EAJ**

Herribitasuna

Maiatzaren 14an Bailearen Eguna ospatuko dugu Orion, baina ez bat, bi, bi bailearen egun. Ez bi balea, ez bi egun. Balea bakarra eta egun berean, baina bi festa, bi programa. Batean su artifizialak, bestean ttuntturroak, baina bietan herri bazkaria. Bi bazkari, baina biak herri bazkari. Biak herriaren izenean.

EAJren Batu gaitezen, Batasuna, Alkartasuna, Bildu, Ezker Batua, Amaikabat... euskal alderdi politiko gehienetan ageri da batasunaren nolabaiteko aipamena. Baina Orion ez diegu kasurik egiten. Hemen bi bailearen festa, bi programa. Gora herribitasuna! Ondo ari gara. Erruaz ez gara hasiko. Zertarako? Bartzuentzat, seguru, besteak izango dira errudunak, eta besteentzat, batzuk. Ez dago errurik, bakoitzak bere festa.

Egunen batean, atzera begiratu eta lotsagorrituko gara, denok ere, ederki asko. Ondo hasi zen bailearen ospakizuna, 2001ean, mendeurrenarekin batera. Hau da hau degeneratzea! Balea bera ere triste dago. Bost urte daukagu, bitik berriro batera etortzeko, batzeko, biltzeko; edo, bestela, bigarren balea egiten hasteko, edo daukaguna erdibitzeko. Zentzutuko ahal gara! Ikasiko ahal dugu! ■ **Herri-tar bat**.

Eskubide guztien alde, ilegalizatorik ez

Hasteko, hemen bildu garen oriotarroi eskertu nahi dizuegu egunotan jasotzen ari garen babes eta bultzada soziala. Horrek esaten digu bide onean goazela, egi-

ten ari garen bidea zuzena dela eta, erasoak eraso, geldiezin izango dela abiatu dugun bidea. Mila esker, beraz, guregana hurbildu zareten guztioi.

Triste gaude. Haserretuta. Igande gauerdian jasotako kolpetik errekupe-ratzeko zailtasunekin, eta beste erantzun baten ondorioak zeintzuk izango diren jakin gabe. Erantzunak erantzun, hauteskunde hauek ez dira izango naturalak. Ez natural eta ez justuak. Ez justuak eta are gutxiago demokratikoak. Pentsamendu askean oinarritzen ez diren hauteskunde batzuk dira. Ez dugu baldintza berdinetan jokatzeko.

Kapazak izan gara herri honetan aukera historikoa zabaltzeko, ilusioa eta itxaropenaren bidea zabaltzeko eta hauteskunde hauek bide horren jarraipena izan behar dute, Madriletik datozen iraganeko errezetei, dagoeneko Euskal Herriari baztertuak izan direnak, herri gisa erantzunez.

Koalizio hau, pertsonak osatzen dugu, herriari gure denbora eta ideiak eskaintzeko osatu dugun zerrendak. Oriorentzat proiektu bat diseinatu dugu eta argi daukagu, gure proiektuak emaitzak emango dituela. Konstituzionalak gure bidea etengo du, baina ez dio amaiera emango. Lanean jarraituko dugu. Hala ere, Bildu ez egotekotan, hauteskundeak ezeztatzea ez zaigu erokeria iruditzen.

Inoiz baino ardua gehiagoz jokatzeko garaiak dira hauek, eta hala egingo du Bildu koalizioak. Egoeraren larritasunak eta urgentziak eskatzen dituen urratsak egiteko gertu gaude Bildu osatzen dugun guztiok, eta gure prestutasun osoa agertzen dugu eragile sozial, sindikal eta politikoekin batera inposatu nahi diguten iruzur elektoralari iniziativa politiko, demokratiko eta herritarrekin erantzuteko.

Bilduk bere programa du, lau urterako egitasmoa osatu dugu Oriorentzat, eta Euskal Herriarentzat konponbidearen lehen pausuak eman ditugu. Utzi diezagutela orain arte bezala herriarekin lanean, herriarentzat lanean.

Bilduk hauteskundeetan egon behar du. ■ **Orioko Bildu**. (Orioko Plazan, 2011ko maiatzaren 3ko kontzentrazioan irakurritako testua).

Okerrak zuzentzeko

Aurreko Karkaran, 297. zenbakian, Eneka Urbizu ezkondu genuen eta ez Eneka Urkizu. Barkamena eskatu nahi diogu endredoagatik.



Agintari berriak hartzeko prest dago Orioko udaletxea. KARKARA

Bost alderdi eta herri plataforma bat Orioko Udala osatzeko

Hauteskundeetatik kanpo utzi zuen Espainiako Auzitegi Gorenak Orioko Bildu, zerrenda, *kutsatuta* zegoela argudiatuta. Helegitea aurkeztua zuten eta Konstituzionalaren sententziaren zain zeuden

Maiatzaren 22an, 4.000 bat oriotarrok izango dugu botoa emateko aukera. 08:00etatik 20:00etara bitartean, bina mahai izango dira udaletxean, Ikastolan eta kultur etxean, botoak jasotzeko prest.

Bost alderdi-Aralar, Bildu, EAJ, PSE-EE eta PP- eta herri plataforma bat -Orain- aurkeztu dira Udal eta Foru hauteskundeetara. Guztiek ere publiko eginda dituzte beren hautagai-zerrendak. KARKARA inprentara bidaltzeko garaian, ordea, zalantzakoa da Bilduren

parte hartzea, Auzitegi Gorenak *kutsatuta* jo duelako beren zerrenda, hauteskundeetan parte hartzea debekatuz.

Oriotar hutsez osatutakoak

Orioko bizilagunez osatutako hautagai-zerrendak aurkeztu dituzte EAJk eta lehen aldiz aurkeztu diren Bilduk eta Orain plataformak.

Egungo alkate Jon Redondo izango da jeltzaleen alkategaia. Hortik aurrerokak Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lurdes Salsamendi Goñi,

Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Fernando Ortiz de Ginea Pérez de Nanclares, Argiñe Azkarate Suinaga, Arantxa Sarasua Etxeberria, Jose Luis Loidi Aranbarri, Juan Mari Irastorza Elorza, Santi Peiro Iruretagoiena, Miren Elixabete Huegun Arruabarrena, Txomin Goikoetxea Oliden, Migel Angel Sarasua Oliden eta Aurora Urdangarin Aizpurua dira.

4.000 inguru oriotarrek izango dute maiatzaren 22ko Udal eta Foru hauteskundeetan botoa emateko eskubidea

Zerrendaren aurrerako izen berriak proposatu ditu Bildu koalizioak: Beñat Solaberrieta Albizu izango da alkategaia eta, hurrenez hurren, hauexek ditu gai-nontzekoak: Jon Agirresarobe Lopetegi, Ekiñe Saizar Larrañaga, Juan Bixente Lasa Karrikaburu, Maria Amaia Dorronoro Portularrume, Itziar Barrenetxea Oliden, Mikel Makazaga Urretabizkaia, Olatz Olariaga Sarasola, Luis Jabier Amenabar Kristobal, M. Dolores Illarremendi Roteta, Manuel Lasarte Bentas, Joxe Luis Arruti Amilibia, Gurutze Iartzia Odriozola, Eider Goiburu Moreno, Txomin Eizagirre San Sebastian eta Joxe Antonio Arrizabalaga Zubiarrain.

Orioko Aukera Independentea -Orain- taldearentzat ere herritarrak dira protagonista. Mirian Uranga Egurza izango da zerrendaburu eta Jokin Izagirre Zabalak, Mikel Aranzabal Urbietak, Jose Angel Iparragirre Alberdik, Amaia Uranga Azkuek, Josefa Gonzalez Sanchezek, Eneritz Odriozola Irastorzak, Jaime Jose Colado Gutierrezek, Iñigo Arruti Agirrek, Arantxa Manterola Lertxundik, Andoni Fernandez Ostolazak, M. Angeles Uranga Urangak eta Luis Maria Aduriz Iruretagoienak osatuko dute zerrenda.

Herritarrak tartean

Tartean herritarren bat badute ere, kanpoko jendearekin osatu behar izan dituzte zerrendak PPK eta PSE-EEK:

PPkoen alkategaia Antxon Ibargoiien Esnal da eta kanpotarrak dira gainerakok. Alderdi sozialistak ere gauza bera egin du Jesus Rodriguez Pousa errenterriarrarekin eta, atzetik, Jose Ignacio Rodrigo Gonzalez -2.-, Elena Baylin Zaldua -4.- eta Ana Priede Merchan -13.- herritarrak daude zerrendan.

Aralarrek, berriz, ez du oriotarrik bere hautagai-zerrendan. Igor Larrarte Usabiaga asteasuarra izango da alkategaia eta Santiago Telleria Alamos bigarren.



Asko izaten dira Done Jakue bidea bakarrik egiten duten erromesak. KARKARA

Iaz baino turista gehiago izan dira aurten Aste Santuan

Euskal Herritik etorri dira bisitari gehien, eta Espainia eta Katalunia izan dira atzerritik turista gehien ekarri dituzten herrialdeak. 2010arekin alderatuz, ia 100 turista gehiago izan dira gure herrian

Turista kopuruak gora egin du aurtengo Aste Santuan Orioko Turismo Bulegoak emandako datuen arabera. Informazio horrek dioenez, Euskal Herritik –EAE-tik eta Nafarroatik, hain zuzen, Iparraldeko datu zehatzik ez baitago– 150 bisitari gerturatu dira Oriora. Espainiatik 110 bat lagun etorri dira, gehienak Gaztela-Leongoak. Bisitari ekarpen handia egin du Kataluniak ere, 51 lagun etorri dira-eta handik.

Atzerritarrak ez dira uda sasoiaren bezain beste izan, baina 40 inguru izan dira oporretarako Orio aukeratu duten pertsonak. Australia, Finlandia, Frantzia, Kanada eta Zeelanda Berritik etorri dira. Horien artean, Done Jakue Bidean ziren erromes ugari.

Apirilaren 21 eta 25 arteko datuak dira horiek eta jende gehien bildu zen eguna, apirilaren 22a, Ostiral Santua, izan zen. Erromesentzat 2. etapa eguna zen eta horriesker nabaritu zen turisten gorakada.

Aurreko urtean apirilaren 1etik 5era izan zen Aste Santuko oporraldia, eta 256 turista izan ziren Orion. Aurten baino ia 100 turista gutxiago izan ziren beraz, 355 bertaratu baitira 2011n.

Okupazio-maila altua

Herriko lotako lekuetan okupazio-maila altua izan dute apirilaren 21etik 25erabarterean. Aisia Balea hotela, esaterako, %90ean beteta izan da bataz beste oporraldian. Hemen ere turista gehienak Euskal Herritik etorriak izan dira, Nafarroatik hain zuzen ere, eta Katalunia, Espainia eta Frantziatik joan zitzaizkien gehien gainontzeko bezeroetatik.

Kanpina ere nahikoa beteta izan da egunotan. Partzelen %72,5a beteta izan da Aste Santuan. Hemen, gehienak Euskal Herritik bertatik etorritakoak izan dira, gipuzkoarrak, bizkaitarrak eta nafarrak hurrenez hurren. Espainiatik etorri dira atzerritar gehienak kanpinera.

LABUR

Euskara

Errenta aitorpena euskaraz

Egin euskaraz errenta aitorpena kanpainari jarri du martxan Orioko Udalak, Zarauzko eta Zumaiako Udalekin eta Urola Kostako Udal Elkarteekin batera. 2.800 oriotarrek egin zuten errenta aitorpena iaz eta horietatik %11k bakarrik egin zuen euskaraz; kopuru hori handitzea da kanpainaren helburua. Errenta aitorpena Orion eta euskaraz egiteko, Itsasadarra, Garmendia eta Olariaga aholkularitzetara jo liteke eta euskaraz egin nahi dela adierazi. Nork bere kasa egiten duenean ere, jakina, aukera dauka euskaraz egiteko.

Nekazaritza

Hiri-baratzea eta autogestioa

Baratzea landu nahi duen edozein oriotarrentzako *Hiri-baratzea eta autogestioa* ikastaroa antolatu du Udaleko Ekonomia eta Enplegu batzordeak maiatza eta ekainerako. 15 euroren truke -7 euro jubilatuen kasuan, doan langabetuentzat-, maiatzaren 17an hasita, astean lau saio egingo dira Orioko Herri Ikastolan, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak maiatzaren 13a baino lehen eman behar du izena udaletxean.

Kultura

Citizen Kane European barrena

European barrenako lehen bira egingo dute Citizen Kane talde oriotarreko musikariek abuztuan eta irailean. Frantzia, Belgika, Danimarka, Alemanian, Suedian, Finlandian eta Norvegian emango dituzte kontzertuak eta ilusioz daude erronkari heltzeko.

Jendartea

Elkartasun kanpaina

Larrialdi, gerra edo ezbehar egoeran dauden herrialdeetatik haurrak gure eskualdera ekartzeko deialdia egin du Urola Kostako Udal Elkarteak. Herrialde horien egoera ezagutarazi nahi da horrela, alde batetik; eta gurera etortzen diren haurren osasuna zaindu eta, ahal bada, hobetu, beste aldetik. Diru-laguntzak emateko deialdia ere onartu du Udal Elkarteak egonaldi horiek bideratzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzat. 24.167,10 euro ditu Udal Elkarteak banatzeko eta Mendebaldeko Saharako haurren aldeko ekimenek izango dute lehentasuna. Maiatzaren 18ra arteko izango da diru-laguntza horiek eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea.

Bi egitarau izango dira Balearen Egunerako: Udalarena eta txosnena

Udalak osatutako eskaintzaz gain, Txosna Batzordeak bigarren egitarau bat antolatu du. Maiatzaren 14ko festa inoiz baino ekitaldi gehiago izango ditu, hortaz

Aurtengo Balearen Eguna sekula baino ekitaldi gehiagorekin etorriko da. Alde batetik, Udalak, beste edizioetan egin duen antzera, egitarau zabala plazaratu du, baina aurtengoan aurrekoetan baino ikuskizun gehiago izango dira.

Txosna Batzordeak, bestalde, egitarau paralelo bat osatu du eta apirilaren 30eko iluntzean egindako prentsaurrekoan aurkeztu zuten, hainbat herritarren babesarekin.

Txosna Batzordearen proposamena

Txosna Batzordeko kideek, *jai propioa* egitearen aldeko apustua azaldu dute. *Inor baztertuko ez duen jai egin nahi dugu, inorekin konfrontaziorik bilatu gabe, zatitzeko asmorik ez dugulako. Baina Udaletik inposatu nahi diguten festa ereduarekin ados ez gaudenez, gure egitarau propioa osatu dugu eragile askoren laguntzarekin.*

Udalaren festa ereduarekin ados ez daudelako, egitarau propioa antolatu dute Txosna Batzordeko kideek

Herriko hainbat eragile batu dira iniziatiba horretara. *Jai eredu parte-hartzailean sinesten dugulako, guk geronek sortutako festa nahi dugu izatea Balearen Eguna. Herritik sortua; herritarrok herritarrentzat antolatua. Antolaketa lanetatik hasi, eta Balearen Eguna arte giro jatorrean eraiki nahi dugu jai. Herritarren inplikazioarekin, lana alai egin ez dezagun jai!* adierazi dute KARKARA igorritako prentsa-oharrean. Hori dela eta, Udalaren egitarauan ere agertzen den larunbat goizeko herri antzerkia sartu dute Txosna Batzordekoek beren programan.

Udalarena, osatuagoa

Aurreko urteekin alderatuta, egitarau osatuagoa prestatu du aurtengorako Udalak. Eskaintza ugari izango dira Balearen Egunean bertan eta festa igandera arte luzatuko da, maiatzaren 15era arte.

Guztira 30.000 euroko aurrekontua du Udalaren programazioak.



Apirilaren 30ean eman zuten prentsaurrekoa Txosna Batzordekoek. KARKARA

UDALAREN PROGRAMA

Maiatzak 14, larunbata

Egun guztian Marinel azoka, Udaletxetik Ibai Ondoko plazara

11:00-13:30/16:30-19:30 Haurrentzako arrantza-tailerrak eta jolasak

11:30 *Balea* herri antzerkia

14:00 Herri bazkaria frontoian

18:00 Danborrada kalez kale

18:00 Antxoa pintxoak eta Saizar sagardotegiko sagardoa plazan

18:30 *Egusenti* otxotea ibiliko da kalez kale

19:00 Donostiako kontserbatorioko bandaren eta Orioko Danbolin musika eskolako bandaren kontzertua Ibai Ondoko plazan.

23:30 Su artifizialak Xuai ingurutik

Ondoren *DJ Xaiboren* emanaldia

Maiatzak 15, igandea

Egun guztian Erdi Aroko azoka

11:00-13:30/16:30-19:30 Haurrentzako arrantza-tailerrak eta jolasak

12:00 Berdela parrillan eta sagardoa Herriko Plazan

TXOSNA BATZORDEAREN PROGRAMA

Maiatzak 11, asteazkena

18:30 *Blai* taldearen eskutik, *Ai ama, balea!* umeentzako antzerkia Balearen plazan (kultur etxearen atzean)

Maiatzak 14, larunbata

Goizean goiz Ttuntturroak kalez kale

10:00 Goiko Kaleko *Talo* taberna irekiko da Kale Nagusian, eta inguruko baserrietan –Aizperro, Etxaiz eta Katxiñan– egindako sagardoa dastatzeko aukera izango da.

11:30 *Balea* herri antzerkia

14:30 Herri bazkaria Ikastolako pergolan. Menua: inguruko nekazarien eta baserrietako produktuekin egindako entsalada, oilasko-paella eta flana (txartelak 8 eurotan salgai Kolon Txikin, Koastan eta Uranga burdindegian)

Bazkal ostean Kantu-kantari trikitalariek

18:30 Kalejira-txikiteoa balearen bertsoak abestuz

23:00 *Triki ta ke* taldearen kontzertua Gaztetxean

Squasheko, padeleko eta teniseko pistak erabiltzeko moduan dira

Karela kiroldegiak kudeatuko ditu pista guztiak eta herritarrek alokatu egin beharko dituzte jokoan aritzeko. Kirol anitzetarako zelaia, berriz, doakoa izango da erabili nahi duenarentzat

Hiru hilabete pasatxo lanean jardun ondoren, Karela kiroldegiaren eta Mendibeltz zelaiaren arteko kirol eremua zabaldu du Udalak aste honetan bertan. Padeleko bi pista, teniseko bat, eguzkia hartzeko solarium txiki bat igerileku ondoan, kirol anitzetarako eremua eta bateatzeko tunela hartuko ditu gunere berri horrek.

Horiez gain, hainbat oriotarrek urtee-

tan egindako eskaerari erantzunez, squash bat ere egin du Udalak Karelan, rokodromoa zegoen lekuan. Metro bete zabaldu behar izan dute lurra, areto futboleko atearen gainean teilatu itxurakoa eginez. Tamainaz, neurri ofizialak ditu $-9,75\text{m} \times 6,40\text{m}$ eta kristal bereziko parretak eta egurrezko lurra ditu; txapelketak hartzeko egokia da, hortaz, 895.000 inguru euro balio izan du guztia egiteak.



Gustura hartu dute gaztetxo eta hurrek Muntoko zelai berria. KARKARA

Ordainduta

Karela kiroldegiak kudeatuko ditu padeleko eta teniseko zelaiak, squasha eta igerilekutik irteera izango duen solariuma. Orduko eta pertsonako 3 euro ordaindu beharko dute kiroldegiko bazkideek pistak ordubetez alokatzeagatik; zerbait garestiagoa izango da bazkide ez direnentzat.

Kirol anitzetarako zelaia, aldiz, doakoa izango da eta irekita egongo da astelehenetik igandera. Bateatzeko tunela, berriz, sofbol taldeak bakarrik erabiliko du oraingoz.

Bestalde, jokoan aritzeko erraketak, palak eta pilotak alokatzeko zerbitzua ere eskainiko du kiroldegiak.

Txapelketak

Instalazio berriak herritarrei ezagutzera emateko, padeleko, teniseko, squasheko eta bateatzeko txapelketak antolatu ditu Mikel Izquierdo kirol teknikariak maiatzaren 7 eta 8rako. Haur nahiz helduentzat izango dira txapelketok eta izen ematearen arabera antolatuko dira partidak. Sariak ere izango dira.

Parte hartu nahi duenak Karelan eman beharko du izena, maiatzaren 6ko 12:30ak baino lehen.

Horrez gain, instalazioak ikusi nahi dituenak maiatzaren 8a arte izango du horretarako aukera.

Teilatua konpondu dute

2010. urteko otsaileko haizeteak teilatu pusketa jan zion kiroldegiari eta orduz geroztik, hala nola eutsi dio neguari. Igerileku txikia astebetetz itxi eta konpondu dute baina.

LABUR

Saskibaloia

Denboraldia amaituta

Bukatu du aurtengoz bere ibilbidea Alustiza Autobusak Orio taldeak. Igoera fasea sailkatu ziren arren, ez dira hain txukun ibili bertan eta azken postuan sailkatu dira. Ondorioz, datorren denboraldian ere hirugarren mailan jokatu beharko dute. Infantil neska-mutilek eta kadete neskek ere bukatu dituzte aurtengo lehiaketak eta, hemendik aurrera, Udaberri Txapelketa izango dute jokoan.

Eskubaloia

Jon Azkue Asobal ligan

Jon Azkue Saizar eskubaloia jokalaririk Arrateren lehen taldearekin Asobal ligan debutatu du. Amaya Sport San Antonio talde iruindarraren aurkako derbya izan da gorengo mailan jokatu duen lehen partida. Azkuek uztailean beteko ditu 17 urte, eta gutxik lortzen duen helburua bete du. Gainera, hegaleko jokalaririk bezala egin du debuta, duen garaierarekin eta adinarekin ohikoena ez den lekuan. Jokatu zuen denboran, behin egotzi zuten bi minuturako eta bi jaurtiketa egin zituen, nahiz eta golik ezin izan zuen sartu.

Judoa

Blanco 5. Europako Txapelketan

Istanbulen (Turkia) jokatu du Europako Judo Txapelketan bosgarren egin du Oiana Blancok. Bi borrokaldiren ostean, podiumerako hautagaia zela argi utzi arren, Eva Csernoviczki hungariarra izan zuen arerio hirugarrenean eta urrezko dominaren borrokatik kanpo geratu zen. Bronzetzekoaren bila, lehen borrokaldia Nataliya Kondratyeva errusiarraren aurka egin zuen, eta bigarrena, Laetitia Payet frantziarraren aurka. Emaitza nahi bezain ona izan ez bada ere, pozik itzuli da Blanco bere mailako judoka onenen artean baita.



Sonia Alonso alaba besoetan duela, Alberto De La Bellaren eskutik saria jasotzen. J. PEREZ

“Izugarrizko ilusioa egin dit jokalaria onenaren saria jasotzeak”

Sonia Alonso

Futbolaria

Urte batzuk badaramatza Soniak Orion, baina izatez azkoitiarra da. Irakaskuntzan egiten du lan Donostian eta hezkuntza bereziko irakaslea da. Beti gustatu izan zaio futboleko jokatzeari eta, Orion dagoenetik, plaieroetan dabil jo eta su

IKER GURRUTXAGA

Izena ezaguna egitea ez da harrizkoa. KARKARAN hainbatetan aipatu dugu Sonia Alonsoren izena, baina futbolarekin lotzearena ez da hain ohikoa. Hori dela eta, arlo honetan gehiago sakondu nahi izan dugu berarekin.

Askorentzat korrikalaria zara.

Kar, kar. Beno, denbora gutxien kentzen duen kirola da, eta horregatik aritzen naiz hainbeste korrika. Baina urte askotan jokatu dut futboleko.

Eskolan hasi nintzen jokatzeko, gero, Azkoitiako taldean 26-27 urte nituen arte jokatu nuen. Handikhona etorri eta

Rebeka Aldakurrekin hizketalditxo bat izan, eta plaieroetan jokatzera animatu nintzen, nahiz eta hasiera batean ezezkoa eman nien taldekideei. Eta, horrela, gaur arte.

34 urte eta jokalaria onenaren saria jasotzen duzu. Poz handia, ezta?

Bai, orain arte korrikan nire mailako aurrena helmugaratzeagatik edo lasterketa amaitzeagatik bakarrik eskuratu ditut sariak. Honek garrantzi berezia du, izan ere futbola izan dut beti gogokoena eta ume txikiaren pare poztu nintzen. Hala ere, arantza txiki bat geratu zait sartuta: finala irabazi ez izanarena. Pena izugarria hartu nuen; gainera, irabaziz gero futbola utziko nuela egina neukan promesa.

Guraso zaren partetik, entrenatzaile bezala ikusten al zara?

Egia esan, oraindik ez. Lanez lepo nabil, oposaketak prestatzen, haurra txikia da oraindik... Baina denborarekin seguru baietz. Askok gustatuko litzaidake saltsa horretan egotea. Gainera, badakit herri-herri arazoak badirela talde guztientzat entrenatzaileak aurkitzeko.

Gainera, hezitzaile izaten ohituta zaudete, ezta?

Hala da, bai. Baina heziketa mota hau guztiz ezberdina da. Nire ustez, gazte guztiak probatu beharko lukete taldekirolen bat. Bertan bizitako esperientzia eta hartzen den eskarmentua izugarriak dira-eta. Errespetua lantzeko modu oso ona da.

Taldean kanpotarrak ere badituzue.

Arrazoi duzu, baina ez gara bakarrak. Finalean aurkari getariarrak genituen, eta han ere kanpotar ugari zen jokatzeko. Herriko neskek gurekin jokatzera animatu nahi ditut. Denboraldia ez da luzea izaten, bost bat hilabete, eta tarte horretan partidak bi astez behin baino ez dira.

Politena herritarrek osatutako taldea izatea da; pare bat kanpotar izanez gero ondo, baina ez da gauza bera. Norbaitek plaieroetan ibili nahi badu, Nerea Uranga edo Josune Perezengana joatea baino ez da egin behar gurekin aritzeko, gustura hartzen ditugu guztiak.

Hondartzako futbol denboraldia bukatuta, orain zer?

Korrika egiteari ez diot sekula ere uzten. Hortaz, orain akaso mendi lasterketaren bat egingo dut. Hori ez bada, ba, sanpedroetako triatloi txikia edo... Beti ere helburu txikiak jartzen dizkiot nire buruari. Dena den, kirola egitea da niretzat kontua. Lasterka aritzea denbora kontuagatik da, baina baten batek edozein kirol partikatzera joateko proposatzen badit... hantxe joango naiz bitan pentsatu gabe! Eskerrak nire mutila ez den batiere kirol zalea!



Aitor Hoyos La Caixako zuzendaria izateaz gain, kirolari amorratua ere bada. KARKARA

“Korrika egitea bizimodu bilakatzen den droga bat da”

Aitor Hoyos

Orioko La Caixako zuzendaria

Kirolari petoa dugu Aitor eta afizio hori aiarrekin konpartitzen du. Hasteko, hurrei kutsatu zien korrika egiteko grina, eta orain emakume taldea entrenatzen du astero

PAT COWIE

Nolatan hasi zinen aiarrak korrikan entrenatzen?

Alaba eta beste 9-10 urteko haur batzuk nahi zutelako hasi nintzen orain dela 3 urte atletismoa eta jokoak uztartzen. Pare bat urte eman nituen haiekin, baina lanagatik utzi behar izan nuen. Oso kirol zaleak ziren, onak, batez ere neskak, eta orain Orioko futbol taldean eta eskubaloian aritzen dira. Kontua da gauza asko lantzen ditugula kirolen bidez: talde lana, diziplina, nor bere burua kontrola-

tzen, osasunaz arduratzen... eta horregatik iruditzen zait garrantzitsua haurrentzat.

Eta aurten emakumeen taldearekin hasizara.

Bai. Dagoeneko 3 urte dira San Silbestre lasterketa antolatzen dugula Aian; bestalde, Zarautzen aurretik kirolik egiten ez zuen emakumeen talde bat bazegoen eta, hemen interesa zegoela ikusita, 15 batekin hasi ginen astean behin entrenatzen, eta bederatzik jarraitzen dute. Aurreneko erronka Lilatoia izan zen, eta 15ek egin zuten. Horietatik batzuk Za-

rautz-Aia krosa dute helburu orain. Beraz, gonbita zabaldu nahi diot gogoan duen edonori taldean sartzeko. Astelehenean 20:00ak aldera elkartzen gara Etxetxon eta 45 minutu ematen dugu korrika, lauak, ariketa batzuk eginez bukatzeko. Entrenamendu oso eramangarriak dira.

“Aste gogorrenetan 15 ordu ematen ditut entrenamenduan eta egun bat libre”

“Zarauztarrak gara, baina Aiara etorri ginen 2004an, etxeak merkeagoak zirelako eta gure zein umeen bizimoduan zerbait irabaziko genuelako”

Eta kirola zure bizitzan?

Betidanik izan naiz oso kirol zale: futbolekin 18 urte bitartean, gero bizikletan, eta 2003an hasi nintzen triatloia egiten eta aurten – 39 urte ditut orain – izango da nire laugarren Ironman lasterketa, Frankfurt: 3.800 m. igeri, 180 km. bizikletaz eta maratoiko 42 kilometroak korrika. Erronka polita da nork bere buruarekin egiteko – 3.000 inguru abiatzen gara. Hemengo mendi lasterketak, herri krosak, maratoiak... egiten ditugu, ondo prestatzeko – Orioko krosa egin nuen apirilean –, baina helburua Ironmana da. Kirol honekin ezkondu naiz, eta bizimodu bilakatzen da: 92 lagun gara Zarauzko taldean, lagunak egin gara, eta giro onean aritzen gara.

Izugarri gogorra ez al da?

Aste gogorrenetan 15 ordu ematen ditut entrenamenduan eta egun bat libre, urte osoan mantendu behar da, eta hilabete bat pasatzen dut entrenamendurik gabe. Orduan, bai, gaizki sentitzen naiz, zerbaiten falta sumatzen baitut. Droga bat da, azkenean, on egiten dizun droga. Eta diziplinatua naiz, bai lanean, bai etxean, bai kirolekin: plangintza egin behar da, bestela jai duzu.

Zer moduz bizi zara Aian?

Zarauztarrak gara, baina Aiara etorri ginen 2004an, etxeak merkeagoak zirelako eta gure zein umeen bizimoduan zerbait irabaziko genuelako. Apustu bat zen eta ondo atera zaigu, pozik gaude.

La Caixak fitxatu ninduen Intxaurrondoko sukurtsala irekitzeko 1997an, 10 urtera beste bat ireki nuen Lezon, eta 2007an ireki genuen Oriokoa. Honuntza aldera etortzea zen erronka eta lortu dut. Oso gustura nago bezeroekin zein lankidearekin, eta garrantzitsua da, ordu asko sartzen baititugu lantokian.

Aurrekoan baino bi zinegotzi gehiago izango ditugu Udalean

Aiak 2007ko erroldan baino biztanle gehiago ditu aurten, 2.000 biztanleko muga gainditu du eta, ondorioz, hauteskundeetan 9 zinegotzi hautatzetik 11 hautatzera pasako gara

Aurreko hauteskundeekin alderatuz, Bildu da berrikuntzabakarra Aiako Udalerako aukeren artean. Orain dela lau urte Eusko Alkartasuna alderdia aurkeztu zen Aian; baina, oraingo honetan, Bildu koalizioaren barruan joango da. KARKARA inprentara bidali genuenean, maiatzaren 4an, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren erabakiaren zain ze goen koalizioa.

Zerrendak

EAJk zerrendaburua aurreko bera du: Igor Iturain Ibarguren. Gainontzekoak hauek dira: M. Jesus Arruabarrena Esnaola, Asier Ibarguren Ibarguren, Miren Idoia Iribar Beldarrain, Arkaitz Iruetagoiena Lertxundi, Ander Arrillaga Albeniz, Naiara Esnal Huegun, Miren Nekane Arrizabalaga Manterola, Inazio M. Zuloaga Aldalur, M. Pilar Sarasola Hue-

gun eta Jon Ander Azpiroz Otegi. Ordezkoak, berriz, Aritz Lizaso Campos, M. Karmen Egurza Agirre eta Joxe Antonio Idarreta Agirresarobe.

Bilduk Aritz Arruti Mintegi aurkeztu du zerrendaburu. Arrutiren atzetik, hurrenez hurren, Aitzpea Elgarresta Larrarte, Asier Egaña Illarramendi, Amaia Maria Gurutzeta Aizpurua, Mikel Zulaika Iruetagoiena, M. Concepción Lazkano Arruti, Eñaut Solaguren Maguregi, Amaia Iturzaeta Orbañanos, Frantzisko Manzisidor Ulazia, Onintza Callejo Gurrutxaga, Haritz Izagirre Agirre izango dira zerrendan. Ordezkoak, Ainize Sayago Etxart, Mikel Aramendi Rezabal eta Pio Arruti Azkue dira.

PSE-EEK Alberto Agirrezabal Etxabe izendatu du alkategai datozen hauteskundeetarako. Hortik atzerakoak, M. Lourdes Agirrezabal Mundiñano, Barentin Elola Azpeitia, Joxe Migel Lukas Azpeitia, Joxe Luis Epifanio Zimmermann Manterola, Juan Karlos Caño Beitia, Fátima Molina Herrera, Joxe Antonio Ramiro Martín, Maria Angeles Mónica Hernández Marzal, Anastasio Monedero Palenzuela eta Margarita Iparragirre Sanz izango dira.

Azkenik, PPK herritarrik gabeko zerrenda aurkeztu du eta zerrendaburua Enrique López Andueza izango da. M. Pilar Gil Alonso, M. Isabel González de Pablo, Angel Eduardo Rodríguez Aranda, M. Belén González Gamir, M. Pilar Sanz García Vinuesa, Belén Virto Estrada, Alvaro Bustamante de la Mora, M. Jesús Hernando Cía, Oscar Jiménez López eta Santiago Rodríguez Bajo izango dira gainontzeko hautagaiak.



Lau hautagaitza aurkeztuko dira Aiako Udalerako . KARKARA

LABUR

Erromeria

Izer, Astiazaran eta Lutxurdio

Andatzako Erromeria Elkartearen eskutik maiatza ere erromeria giroan dator Aris-terrazura. Maiatzaren 8an Izer, Astiazaran eta Lutxurdio arituko dira eta maiatzaren 15ean, berriz, Astiazaran anaiak eta Leire. Bi igandeetan 18:30etik 21:30era bitartean izango da Andatzan trikiti doinuekin dantza egiteko aukera.

Ingurumena

7.000 bisitari landare azokan

Iturrarango Landare Berezien Azoka izan zen joan den aste bukaeran eta larunbat eta igandea bitartean 7.000 bisitari gerturatu ziren. Antolatzaileen esanetan, maiatzaren 1eko jai eguna zela eta inguruan beste hainbat ekintza suertatu zirenez, bisitari kopurua jaitsi egin zen igandean. Hala ere, jakinarazi dute larunbatean jendea ireki orduko zain zela irrikaz landareak erosteko eta salmentak nabarmen izan zirela gehiago. Horren adibide

da, esaterako, larrosekin etorri ohi den *Pepinieres des Farguettes* mintegi frantsesak bi larrosa baino ez zituztela bueltan eraman Aiatik. Bestalde, antolatzaileek azpimarratu dute *Blas Enea*, landare ekologikoen Zarauzko mintegiak baratzerako landareak ekarri ohi dituela batik bat azokara eta urtetik urtera hobeto prestatuta etortzen direla landare berezien azokaren kontzeptua ongi ulertuz; aurten, esaterako 29 tomate landare mota ekarri dituzte. Aurtengo edizioarekin, gustura daude, beraz, Iturraranen.

Berriro eskolara

Badira 13 urte Aiako eskola txikia utzi nuela eta orain berriro hemen naiz, bueltan. Ez nuen inoiz pentsatuko bertara bueltatuko nintzenik, ez oroitzapen txarrak nituelako, baizik eta nire burua irakasle moduan ez nuelako ikusten. Baina horrelakoak dira gauzak, eta ohartzerako hemen nago nire betiko eskolan, 3 urteko gelan, karrera amaierako praktikak egiten.

Gauza batzuk aldatu egin dira, baina, finean, Aiako eskolak betikoa izaten jarraitzen du. Hala eta guztiz ere, badago atentzioa eman didan kontu bat, nire garaietan egiten ez zena: asanblada. 5-6 urtetik, 6. mailara arteko ikasle nahiz irakasleak elkartzen dira gela baten hilean behin. Eskolaren inguruko gaiez hitz

egiten dute. Jolas garaia, materiala, elkarren arteko harremana, errespetua... Ikasle zaharrenak izaten dira moderatzaileak eta norberak duen iritzia, irakasle zein beste ikaskideen aurrean, modu askean esateko aukera ematen du bilera horrek. Oso interesgarria iruditu zait, irakasleek ikasleez ere, ikasteko asko dutelako.

Unibertsitatean sarri hitz egin dugu eskola *idealari* buruz. Goi mailako ikas-

Ez nuen inoiz pentsatuko Aiako eskolara bueltatuko nintzenik, ez nuelako nire burua irakasle moduan ikusten

ketak amaituta ohartzen naiz, unibertsitatean erakutsi diguten eskola *ideal* horretara asko gerturatzen dela nire txikitako eskola.

Aiako eskolan haurrak dira bere ikasketen protagonista. Talde txikiak izanik, gelak elkartu egiten dira eta beste ikaskideekin ikasten dute, batzuetan berak baino gehiago eta besteetan gutxiago daitenekin. Irakas-ikaskuntza prozesua zuzena eta pertsonalizatua da, haurren beharretara egokitua. Bestalde, eskola herrian egotean, umeen hezkuntzan eta herriko bizimoduan eragina du. Ez da erraza hori eskola handietan ikustea.

Ia 20 ikasle izango dira datorren urtean 2 urteko gelan. Eskola handitzen ari den arren, ez dezala Aiako eskolak txikiaren izaera eta xarma inolaz ere galdu.



Txokoak eta jendea
Asteburu oparoa
neska kirolarientzat

Paleta eta plaieroetako finalak izan ziren apirillean. June, Naroa eta Ainhoa (alebinetan) eta Garazi eta Aroa (infantiletan) nagusitu ziren Paletako Gipuzkoako txapelketan. Plaieroetan, 5. eta 6. mailako neskek 5-3 irabazi zuten, June, Ainhoa, Naroa, Saioa, Estitxu, Nerea, Ane, Lorena, Kelly eta Maialen eta Jose Mari entrenatzaileak.



ESKABETXERIAK LOURDESERA BIDAIA

Lourdesen (Frantzia) ateratako argazkia da goikoa. Eskabetxeriak antolatutako eskurtsioa izan zen eta bi autobus jendez lepo beteta joan ziren haraino. Argazkian horietako batzuk ageri dira. 47 bat urte pasako ziren harrez geroztik.

Hauxe da guk dugun informazioa eta hauek dira argazkikoak: Bahamontes senar-emazteak; Lopez senar-emazteak; Lopetegi-Barjacobaren senar-emazteak; Etxeberria-Ikaran senar-emazteak; Kontxi Luluaga, Pepita Uranga,

Maria Frantziska Etxeberria, Margarita Garcia bere alaba Lucia Hernandezekin, Eusebio Ferradas eta Nieves Herranz senar-emazteak eta Mariano, bietako baten aita; Maria Pilar Larrañaga, Bixente Larrañaga, Angela Uranga, ferreteriakoaren amona; eta Maria Luisa Uranga.

ARGAZKIA ETA INFOR.: MARIXABEL ETXEBERRIA

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.





Enrikotxiaren segida txapelketari begira

Herri bertsozalea da Orio, eta Orion izango du, hain zuzen ere, abiapuntua igandean, maiatzaren 8an, **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak**. Orio puntu garrantzitsua izango da, ez bakarrik lehen saioa herrian egingo delako, baizik eta lau bertsolari oriotarrek ere txapelketan parte hartuko dutelako

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: KARKARA ETA GPUNTUA

Gpuntua, Gipuzkoako bertsoaren bilgunea. Gpuntua lelopean egin zen 2007an azken Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta, puntu eta aparte egin beharrean, puntuaren ondoren etenik gabe segida emango diote aurten.

Puntu eta segidaren arrazoiaren berri eman digu Rikardo Idiakezek, txapelketako komunikazio arduradunak: *2007ko txapelketaren harira elkartek gogoeta egin zuen txapelketak lehengoan jarraitu behar ote zuen, gauza berriak egin... Ikusi dugu Gipuzkoako bertsolaritza sendo dagoela, erronkei aurre egiteko moduan; bertsolari asko dagoela. Beraz, hartu dugun erabaki garrantzitsuena da txapelketa 8 hilabetekoa izatea: maiatzaren sailkapen fasea, udan atsedena eta irailean final zortzirenekin hasiko gara.*

Maiatzaren 8an hasiko da txapelketa eta Orio izango du abiapuntu. Orion lehenik ere egin izan da txapelketako saiorik, baina aurten berriz ere hartuko du Gpuntuaren olatuak Orioko hondartza. *Lehen fasean txapelketa herri txikietara eramango dugu, besteak beste txapelketa inoiz iritsi ez den hainbat herritara, formatu txikiko saioak, herrikoiagoak egin nahi ditugu,* dio Rikardo Idiakezek.

Txapelketan, guztira, 76 bertsolarik parte hartuko dute. Sailkapen fasean 60k; 2007ko 10 semifinalistak eta 6 fina-

lista final laurdenetan. *Aurten kantatuko dute Gipuzkoako Txapelketan sekula kantatu gabeko 23 lagunek.*

Bertso eskolak

Bertsolari, gai-jartzaile, epaile eta antolatzaileak txapelketan murgiltzeko ezinbesteko lana egin dute bertso eskolek eta aurtengo txapelketako helburuetariko bat da Bertsozale Elkarteak bertso eskolengana gerturatzea eta hauen lana aitortzea. *Gipuzkoan bertsolaritza sendo badago, hein handi baten, bertso eskolen lanari esker da. Horretaz gain, txapelketaren antolaketan ere bertso eskolek asko laguntzen dute.* Bertso eskolekin harremanak estutzeko, besteak beste, txapelketa egunean bazkaria antolatuko dute. *Bi saio izango dira eta tartean bazkaria egingo dugu bertso eskolako jendearekin, antolatzaileekin, bertsozaleekin...*

Lau oriotar

Errikotxia bertso eskolako fruitu dira aurten Gipuzkoako Txapelketan arituko diren lau bertsolari oriotarrak. Ibai Esoainek eta Egoitz Eizagirrek maiatzean ekingo diote txapelketari; Iñaki Gurrutxagak eta Xabier Sukiak udazkenean. Antolakuntzan ere ez da oriotarrik faltako. Errikotxiako lagunak Orioko saioan arituko dira laguntzen eta txapelketa guztian barrena antolakuntza taldean ibiliko da Jon Agirresarobe *Torrotxo*.

Orio izango da txapelketaren abiapuntu eta Ibai Esoain ere etxean hasiko da. *Inertziaz eman du izena eta ez dauka helburu jakinik. Hasierako fasea gainditzea gustatuko litzaidake. Hala bada, gero geroak, dio Esoainek. Egoitz Eizagirrentzat urtebeteko geldialdia eta gero, ia zerotik hastea izan da bere ustez txapelketan izena ematea. Aurtengo helburua da nire inguruari, eta batez ere, bertso-lagunei poz bat ematea. Bertso eskolako lagunaren aurpegian irribarre bat uzten badut, nahikoa!*

Iñaki Gurrutxagak finaleko helburua jarri dio aurten bere buruari. *Badakit lan zaila dela, eta ez sartzea ez dela inongo frakaso izango, baina kapritxo hori daukat. 2003an hura zer zen ikusi, 2007an sartu ez eta Ilunbeko giroa ikusita, oholtza gainetik berriz ere sentsazio hori probatzeko gogoz nago.* Sukiak ez du helburu lehiakorrik: *Txapelketan egongo garen Orioko bertsolari guztiak udazkeneko fasean izatea da nire nahia.*

Bakoitzak bere helburuak izan arren, nola begiratu ote diote txapelketari? Komunikazio eta sustapen taldean dabilen jendeari erreparatuz gero, txapelketa ederra joango dela uste du Esoainek. Gurrutxagak txapelketak aurreko Gpuntuaren kutsua dakarrela uste du eta oso

“Gipuzkoan bertsolaritza sendo badago hein handi batean bertso eskolek egindako lanari esker da; txapelketaren antolaketan ere bertso eskolek asko laguntzen dute” RIKI IDIAKEZ

“Badakit lan zaila dela, eta ez sartzea ez dela inongo frakaso izango, baina Ilunbeko finalean izateko kapritxo hori daukat; sentsazio hori probatzeko gogoz nago” IÑAKI GURRUTXAGA

“Faboritorik ez daukat txapelketarako, baina Orioko bertsolari txapelketan bezala kantatzen badu, Ibai Esoainek finalean egoteko maila badu. Ez da broma” XABIER SUKIA

“Komunikazio eta sustapen taldean dabilen jendeari erreparatuz gero, aurtengo txapelketa ederra joango dela uste dut” IBAI ESRAIN

“Iboniren bonboarekin, Torrotxoren antolakuntzarekin eta Peronaren tronpetarekin animatuko nuke nik jendea txapelketara joateko” XABIER SUKIA

“Prestatzeko zeozer egin dut, dena egiteko asko falta zait, baina honez gero egindakoarekin beharko du! Udazkenean jarraituko banu denbora gehiago izango nuke gauzak fintzeko” EGOITZ EIZAGIRRE

tankera ona hartu dio. *Azken urteetako Euskal Herriko finalistarik ez da izango, Aitor Sarriegi salbu, baina beteterano koa drila ederra badago. Izen berriak ere mordo bat, baina gazte-sariketetan eskarmentu handikoak... hasieratik maila polita izango da.* Uste bertsukoa da Eizagirre ere eta txapelketa irekia izango dela uste du: *Mendiluze eta Maia falta dira eta horrek ia-ia finalerako bi postu gehiago egongo direla esan nahi du. Sailkapen fasean 60 bertsolari arituko gara eta ezagutu ere egiten ez ditudan asko. Baina ez ezagutzeak ez du esan nahi onak ez direnik, gazteak dira, ilusioz datoz eta ez dute bertsolaritzaren gurpiletik jaisteko denborarik izan.* Sukiak bi zurrumbilotan harrrapatu du txapelketak: Euskadi Irratian txapelketa jarraitzea izango da bere lana eta udazkenean bertsolari bezala parte hartzea. *Profesional bezala prest harrrapatzen nau, bertsolari bezala oso lasai.*

Prestaketan lasai

Oraingoz lasai, bai, baina txapelketara begira lanean. Ibai Esoainek dio prestaketa handirik ez duela egin: *Astean behin biltzen gara gure artean herdoilak kentze aldera.* Sukiak ere orain arte oso tarteka bildu direla dio, *baina pulamentu handiegirik gabe, eta hemendik aurrera egin beharko dutela lan, orain artekoarekin bakarrik ez dago konformatzerik. Uda ez da lanerako garairik aproposena baina udan heldu beharko diegu arraunei. Banderarik ekarri nahi bada behintzat.* Egoitz Eizagirrearen esanetan prestaketa betikoa da: *oinak erreparatu, ideien formulazio berriak probatu, iruditegia landu eta bertotan egin! Zeozer egin dut, dena egiteko asko falta zait, baina honez gero egindakoarekin beharko du! Udazkenean jarraituko banu denbora gehiago izango nuke gauzak fintzeko.* Iñaki Gurrutxaga astero biltzen da Iñigo Izagirre, Jokin Uranga eta Beñat Lizasorekin. *Hori bera bada nahikoa prestaketa, bertso-eskolarik egiteko ohiturarik ez dugu eta. Hauek maiatzean sartzen direnez, ariketa zehatzak ari gara egiten. Orixe Sariketa ere mugarri txiki bezala jarri genuen, txapelketaren tesituran norbere burua kokatzeko, eta ez zen gaizki joan.*

Taula gaineko bertso kideei erreparatuta zer espero duten galdetuta *denok ere maila polita ematea, espero eta desio duela esan du Esoainek. Eizagirrek bi kanporaketetan izango ditu kantukide Jokin Uranga eta Oihana Iguaran eta Usurbilen baita Agin Rezola ere. Jokin eta Agin ondo ezagutzen ditut eta konfiantza ematen didate. Saioa lehertzeko gaitasuna dute eta hori niretzat ona da, beraieie eustea lortuz gero olatuan eraman nazaketelako udazkeneraino.*



Egoitz Eizagirre entzat eta Ibai Esoain entzat maiatzeko sailkapen fasean hasiko da txapelketa; Iñaki Gurrutxaga eta Xabier Sukiak entzat, berriz, udazkenean. Esoainek Olaizola, Zinkunegi, Fernandez, Artola eta Azkarate arituko dira lehen saioan. GPUNTUA

Gurrutxagak eta Sukiak oraindik ez dakite beren saioan zein arituko diren, baina badakit atzetik datozenak ez direla herrenak izango. Adibide asko daude, behetik hasi eta goraino iritsi direnak. Orain lau urte Beñat Gaztelumendi azpi-azpitik hasi zen, fase guztiak azken postuetan pasa zituen eta gero bigarren geratu zen finalean. Sukiak ere hala uste du: *Gipuzkoan, oso goi mailan dauden bertsolariak kenduta, goi mailako bertsolari asko daude nahiko itzalean daudenak urte osoan. Txapelketa soilik argi egiten dutenak. Aurten argi berri asko ikusiko ditugu eta argi zaharrak ere berrituko dira noski.*

Gehien argi egingo dutenak finalera iritsiko direnak eta txapelduna, noski. Baina oriotarrek ez dute kiniela garbirik egin. Gurrutxagaren ustez, *dena dago airean, fasetik faserako sailkapenetik hasita azken saioa irabaztera arte.* Esoain ausartu da pare bat izen botatzera: *Beñat Gaztelumendi, Irazu... hortxe ibiliko dira.* Egoitz Eizagirre ez du uste sorpresarik izango denik: *Baina sorpresa al litzateke Beñat Gaztelumendik irabaztea? Edo Jon Martinek? Edo Iñaki Gurrutxagak? Edo beste inork?* Sukia herrira begira jarri da: *Orioko bertsolari txapelketa bezala kantatzen badu, Ibai Esoainek finalean egoteko maila badu. Ez da broma.*

Animoak

Gpuntuak bertsolariak ditu puntu garrantzitsu, baina zaleak ere apuntatu behar dira saiotik saiorako zerrendan. Bertsolariek ere animatu nahi dituzte zaleak, hala ere, ez dute bultzada handirik behar dutenik uste. Esoainek dio *gertuko eta eroso* sentituko dela entzulea saioetan. Gurrutxagaren ustez, *azken urteetan bertso kultura aldatu egin da. Lehena go izen batzuen atzetik zebilen bertsozalea, orain saioa diferenteen bila hasi da. Aurtengo txapelketa izenez berria izango da askorentzat, baina kalitatea urtez urte gora doanaren adibide garbi izango da.*

Animoak herrira bertara ekarri dituzte beste biek: *Iboniren bonboarekin, Torrotxoren antolakuntzarekin eta Peronaren tronpetarekin animatuko nuke nik jendea txapelketa joateko, dio Sukiak.* Eizagirre uste du Errikotxiak lan bikaina egin duela herrian bertsoa presente egoteko. *Herri bertsozalea da Orio eta hortik aurrerakoa txapelketaren izaerak berak egiten du. Hala ere, aukera paregabea da inoiz entzun ez diren bertsolariak entzun eta gozatzeko eta batekin baino gehiagorekin harritzeko ere.*

Herritarra animatu, sekula entzun gabeko zein ezagunak diren bertsolariak taula gainean ikusi eta aditu eta Gipuzkoako bertsoaren puntu gorenaz, Gpuntuaz gozatzeko abiapuntua Orio.

ORIO TARRAK SAIOZ SAIO TXAPELKETA

Orion jokatuko dira sailkapen faseko lehen bi kanporaketak: goizez bat eta arratsalde bestea. Ibai Esoain egokitu zaio txapelketa herrian bertan hastea eta berarekin batera talde gazteari.

Arratsalde izango da Esoain Ikastola-ko aretoan kantari, baina goizeko 11:30ean zabalduko zaizkio txapelketako ateak lehen seiokori. Kantuan honako sei bertsolari: Andoni Otamendi, Andoni Goitia, Arnaitz Lasarte, Josu Oiarzabal Xamoa, Julen Agirreburualde eta Endika Igartzabal.

Lanean jarriko ditu Saroi Jauregi gai-jartzaileak eta honako saioak egin beharko dituzte bertsolariek: ofizioka zortziko handian, zortziko txikian eta Iparragirre doinuaren molde berrian eta kartzelako lanean bakarka lehen puntua emanda, zortziko txikian, hiruna bertso eta hitza gaitzat emanda, bertso bana.

Arratsaldean, 17:30ean, Jon Zalduaren esanetara, Ibai Esoainekin batera taula gainean Mikel Olaizola, Nekane Zinkunegi, Antton Fernandez, Mikel Artola eta Gorka Azkarate izango dira bertsoan eta egin beharreko lana honakoa izango dute: ofizioka, zortziko handian, lauho handian koplata eta hamarrek txikian; kartzelan, berriz, gaia emanda bi bertso doinu eta neurri librean.

Orioko saioan arituko dira bertsolari horiek baina oriotarrek izango dituzte beste kanporaketa batzuk. Sailkapen fasean Egoitz Eizagirre Mutrikun arituko da goizez maiatzaren 14an. Maiatzaren 28an, berriz, Esoainek Amezketan kantatuko du goizez eta Eizagirrek Usurbilen arratsalde.

Hortik aurrerakoa kanporaketa fasean egindako saioen arabera; hala ere, beste bi oriotarrek zehaztuta dute hitzordua, final zortzirenetakoa. Xabier Sukiak Azkoitia izango du saioa irailaren 18an eta Iñaki Gurrutxagak Eibarren irailaren 24an.

Oriora, maiatzaren 8an saioak entzute-ra edo gainontzeko kanporaketetara bertsolari oriotarrak animatzera, maiatzean hasi eta txapelketa bukatu artean bada hamaika aukera.

Pronostikoak, "bagara eta ez bagara"

Asteartearekin ari naiz gutuna idazten eta KARKARA inprentan egongo da Konstituzionalak hitz egiterako. Ezkor nago, benetan. Negar egiteko gogoia, sentipen ia bakarra. Pena da gurea: lanerako bildu gara herritar taldea, handitzen joan da multzoa eta ilusioa. Kanean antzeman dugu, herritarren animo eta begiratuetan. Akabo, ordea! Ez digute hauteskunderen ateratzen utziko.

Deskuiduan Konstituzionalak absoluzioa emango al digu? Litekeena kontrakoa gerta dadin kandela piztuta egon izana Eusko Gudari kaleko zenbait etxetan. *Kristok yerruki* egingo du haienean. Azkenean, Bin Laden bezala, itsasora botatzen bagaituzte, lasai asko gobernatuko dute beste lau urtez, betikoek: zerrendako hamargarrena ere, mahaira! *mayoría absoluta* maiatzaren 22an! Nola esango diote ezetz opariari?

Baina, lasai. Epe luzerako apustua da gurea, piano-piano. Kontxako estropa-

Deskuiduan Konstituzionalak absoluzioa emango al digu? Litekeena kontrakoa gerta dadin kandela piztuta egon izana Eusko Gudari kaleko zenbait etxetan. Kristok yerruki egingo du haienean. Azkenean, Bin Laden bezala, itsasora botatzen bagaituzte, lasai asko gobernatuko dute beste lau urtez, betikoek: zerrendako hamargarrena ere, mahaira!

dak bi igande izaten ditu. Saillapena jokatatu aurretik deskalifikatu gaituzte, baina hurrengo urtean ere izango da estropada eta kamiseta horia jantziko dugu. Bizitzak buelta asko ematen ditu. Eta estropadak brankan eta poparean izaten dira, bi zentzutan: olatuaren kontra aurrena, olatuaren alde gero.

Denbora laburrean kontratan etorriko zaizue orain alde duzuen. Noiz hasiko gara eskubide berdinekin arraunean, ontzi horian elkarrekin?

Baldin bagara, lanerako etorri gara, proiektuak eta lan estilo berria dakarkigurekin. Baina, zer esan astearte triste honetan; plazako irudiarekin gelditzen naiz. Herritarroi eskerrik asko zuen babesagatik, ez zaituztegu ahaztuko. Hori bai, falta zirenen ausentziak bakarrik hitz egiten du. Baina, dirudienez, ez gara izango eta momentuz libre zarete... On dagizuela txanpainak!



Gabon
TABERNA
Plater kaxak eta depurtxoak
Tfn: 943.83.06.09

AHOLKULARITZA
Fiscal, laboral, contable
Eugenio Garmendia
ASEGURU ARTEKARIA
IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Orioko Herri Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

jatetxea
logelak
gazteategi
Elkano auzoa
943 13 16 06

BACHEN LOREAK
OREKA ENERGETIKOA
- tratamendu naturalak -
- oreka energetikoa -
- bachen loreak -
Kikus Ferrokarrak eta iburgarri
Tel: 655 726 291
email: orio@bachenloreak.com

Zaragueta Eskola Orrio
telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: Or2137aa@medikuntza.net

Goizeko
KAFETEGIA
943 83 28 55
Aita Larrazuri, 33 barria - ORRIO
Autobus parada ondoan

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe
aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
onpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa
Tel: 943 59 40 25 Fax: 943 83 54 58 itsasadarra@itsasadarra.com
Ita: Orrio 4, barria. 20210 Orrio

Norberetik, herriari begira

Urtarrilean Erregeen kabalgata, otsaila edo martxoan inauteriak, maiatzean Kukuarri eguna, ekainean sorgin dantza, irailean gazte festak, urrian Goiko Kaleko festak, azaroan sanmartinak, abenduan Olenzero plazan, Herribil... sanpedroak eta sanikolasak...

Herriko hainbat eragile eta herritarrok antolatutako festa eta ikuskizunek egun markatua dute gure etxeetako egutegietan. Ez ditu-



gu markak hausten, baina herritar askok hartzen du parte. Gauzak ondo antolatzeko badakigu. Inongo marka eta lemarik gabe, Orio estilora egiten dugu lan: herritik sortuz, herritarrok herriarrentzat lan eginez. Horretan sinesten dugu eta hortik jarraitu nahi dugu lanean.

Ez dugu irabazirik, beti gutxiengo presu-
puestoarekin ibiltzen gara eta, hala ere, gure asmoak aurrera eramaten ditugu. Gure programak Udalaren zigilua daramate, milaka bilera eta konfrontazioen ondoren lortutako diru-laguntza dela medio. Eta, agian, gure esker onaren zain daude, baina herrigintzan dirua baino gehiago behar da: konpromisoa, konfiantza eta gardentasuna.

Balearen Egunaren harira, berriro ere errespeturik gabe hartu gaituzte. Elkarlanerako zirrikiturik ere ez digute utzi. Gure proposamen guztiak jaso nahi izan dituzte eta, egokiak irudituz gero, beren programan egokitu. Barkatu alkate jauna, gauzak ez dira horrela! Ez dugu liskarrik sortu nahi izan, nekatuta baikaude horretarako. Ez da, ezta ere, kapritxo kontua, baizik eta gure printzipioak ditugula. Balearen Eguna ez da alderdi baten kanpaina egiteko eguna. Herritarrontzako egun berezia da: alde batetik, herritar guztiok inplikatzeko gaituelako eta, bestetik, Orion kokatzen den gertakizun historiko bat ospatzen dugulako. Hori ulertu nahi ez baduzu, alperrik ari gara.

Ostiraleko prentsaurrekoan plazan adierazi genuen bezala, ez dugu konfrontaziorik bilatzen. Gure jai ereduaren aldeko apustua egitea erabaki dugu, Udalaren diru-laguntzarik gabe. Guretzako ere egun garrantzitsua delako, hori egon nahi dugu, giro jatorrean, herritar guztiekin.

Ziur gaude egun horretan giro polita izango dela herrian, eta herritar guztiak luzatzen dizuegu gonbita arrantzale arropak jantzi eta gurekin batera kalera, festara, ateratzeko.

Gora herritarren parte hartzetik abiatutako jaiak!

Balea egunaren harira, berriro ere errespeturik gabe hartu gaituzte. Elkarlanerako zirrikiturik ere ez digute utzi. Gure proposamen guztiak jaso nahi izan dituzte eta, egokiak irudituz gero, beren programan egokitu. Barkatu alkate jauna, gauzak ez dira horrela! Ez dugu liskarrik sortu nahi izan, nekatuta baikaude horretarako

Nire honetan
Iker Gurrutxaga

Alderdien ginetik, herria

Astelehen goiza. Jaiki eta lanera noa. Bart jakin dut Bilduren inguruan Espainiako Auzitegi Gorenak eman duen sententzia eta zutabe hau aldatu beharrean naiz.

Nire ideologia ez da sekula partidista izan, eta aurrerantzean ere ez dut uste hala izango denik. Baina, partidu batzuen jarrerak txunditurik nauka, gutxienean, azken egunotan.

Espainiara begira jartzen bagara, PP eta PSOE alderdiak ditut begiz jota, horiek inpugnatu baitituzte mekanismo burokratiko-juridikoak erabiliaz Bilduren zerrendak.

Baina arazoa etxean daukagulakoan nago. Espainian Bilduren beldur direla dio askok hemen, baina bertan ere bai. Bestela ezin dezaket ulertu EAJ, Aralar, H1! eta EBren jokabidea.

Horien jarrerak zeharo suminduta nauka. Euskal gizartearen zati handi bati hitza ukatzeko pausuak ematen dabilta Madrilen eta etxean, lerdea dariola, tarta gozoaren puska handiago bat jango dutenaren esperantzan.

Osteguna bukatu aurretik emango du epaia Konstituzionalak. Baina kaltea egina dago. Diskurtsoa aldatu dute bertako alderdiek, baina nire uste apalean, beranduegi. Horrelakoak gara gurean. Beti berandu eta aitzakiekien.

ITZIAR
kirolak
Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo
Aseguru-agenzia
ASEGIURUAK
Abeslari. 4. 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

ardeak, urdaikiak, gaztak,
kantserbak, janari prestatuak
etxeraino eramaten ditugu
943 83 09 84 aita lertxundi, 36 ORIO

FISIOTERAPIA - Garbaitz Arriategi eta Natalia Alarcoson
NUTRIZIONISTA - Gemaitz Argui



sinergia investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-cina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77
sagasti@leihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orlo (Gipuzkoa)

Orioko Ogia



ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
frontoi ondoan
ifnoa: 943 83 01 89

LEIROLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

<p>Fitxak Agote Iratxelehena Agote, 3 20742 Zarautz</p>	<p>Fitxak/lekuak San Frantzisko, 1 20900 Zarautz</p>	<p>Fitxak/lekuak Aita Lorozenb. 21, 20810 Orlo Tel: 943 13 00 35</p>
---	--	--

LOBETXU JATEKIA



Eusko Gudari, 18 Tel: 943-83 00 07

Lizaso dekorazioa



Eusko Gudari, 4B
Tel: 943 83 00 84 Fax: 943 83 80 88

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeka asmorik bai?

www.wikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

LURDES
argazkilaria



Eusko Gudari, 4- Tel. 943 83 00 24

LUXARBE
logelakidetasun

Igeltzeritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Ifnoa: 943 83 59 00

argoztegia
MIRANDA
Luzen M. Lekuak


dira, ala, beko, eskalera...
bar diaz apala lanak
luzen itekizugun

zozta bidai. 1. 060 42 32 70 e ZARAUZE

PERTSIANAK
A M
K O A Z

Aluminio, PVC
Ventilatoriak
Motorrak...

Tel: 943 13 49 01 Mugakorra 600 70 52 27



Hekain

RAMIRO
argazkiak
jaunartzeak
65 eurotik gora

943 83 10 48 / 610 69 76 68
www.fotoramiro.com

TANATORIO ZARAUZE

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

* Denaio eta probintziako ospitaleetan
* Aldi-roko zerbitzuak
* Belatorio gelak
* Korriak, eskulak, trontzioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 83 48 37 / Fax: 943 83 48 41
e-mail: huzosp@tanatorio.net

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Eusko Gudari, 10 behe-cina
Telefonoa: 943 13 47 90
fax: 943 63 87 52
e-mail: zaldua.dolores.p@allianz.es

KOLON TXIKI
kafetegiak
jatekietan



Herriko Emparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

egin zure
publizitatea
gurean



9:00z kartak
9/43
83 15 27

Orioko gizon-emakumeen lantegiak eta bizimodua

Kritika


Orio, oro hori

Antxon Agirre Sorondo, Orioko historiari buruzko liburua, 257 orrialde, 10 euro. Argitalpena: 2011ko otsaila, Orioko Udala

Herri batek sortzen duen mundua, haren bizimodua aztertzen du etnologoak, gizon-emakumeak zer egiten zuten eta nola. Horrelako galderak izan ditu buruan Antxon Agirre Sorondok, eta ez hainbeste zeinek etazer, kaleratu berri duen lanean. Oriokoari heldu baino lehen, beste herri batzuen historia ere aztertu du eta liburua egin, Getaria, Aia edo Lasarte-Oria, adibidez.

Aurretik argitaratua zuen *Orio historian zehar* Marta Trutxueloren liburua Udalak, baina herritarrentzat errazago irakurtzeko lana nahi zuen, eta Agirre Sorondo bezalako komunikatzaileari agindu zion egiteko. Denbora puska pasa da harrez geroztik eta, euskaratu eta gero, salgai dago guztion eskura.

Orio, oro hori jarri dio izena liburuari eta mendeetan izandako oriotarren bizimodua azaltzen du dozena bat ataletan antolatuta. Gustura irakurtzen ditugu gure aurrekoen pasadizoak, nola heldu dioten egunerokoari, bereziki azalpenak eman eta datuak irakurtzen laguntzen digunean egileak. Geroak oraina hobeto ulertzera eramaten gai-



Oriotarren historia ezagutzeko bide ederra da liburua. KARKARA

tu, Orio beste modu batera sentitzera eta maitatzera. Badiu, ordea, interesgarriak eta jakingarriak izan arren, datu zehatz gehiegi dituzten pasarteak eta, orduan, moteldu egiten da kontakizuna.

Miren Etxeberriak, itzulpen ederrean, oriotarren doinu eta hitzetara ondo baino hobeto egokitu du Antxon Agirreraren jardun arina.


Beste iritzia dugu, ordea, edizioari buruz. Materiala eta diseinua oso soilak dira: maketazioa pobrea, irudirik gabe eta, okerrera, akats askorekin, zaindu gabea testua. Jende guztiari liburu atsegina eskaintzeko helburuak merezi zuen beste mimo batekin zaintzea emaitza.

ANA G. DE TXABARRI

Ikasleak idazle
Karla Fdez de Betoñu

*Iturri asko,
baina urik ez*

Egarri zara eta, ingurura begiratzean, iturri bat ikusten duzu. Gerturatu, botoiari kalka egin eta, hiru aukera izan ditzakezu: lehenengoa, azkenaldi honetan ohikoena, tanta bat bera ere ez erortzea da. Bigarrena, berriz, praka guztiak bustitzen dizkizun ura presio izugarriz ateratzen hastea da. Eta azkena, zorte handia baduzu, ongi irtetea izango litzateke.



Egia da, herriko ia txoko guztietan ikusi ditzakegula iturriak, baina, zertarako hainbeste beren funtzioa betetzen ez badute? Gu txi batzuk bakarrik dira horietatik egoera onean mantentzen direnak. Beraz, eskertzekoa litzateke honako arazo hau konpondu ahal izatea eta, guztiok ere iturriak errespetuz tratatzea.

Hiru aukera izan ditzakezu; lehenengoa azkenaldi honetan ohikoena, tanta bat bera ere ez erortzea da

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TAMAYOKAK - BERRIOLA

Santiago eztoa - 18 postokutia
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
180 000

Estaroko balbula
AENOR kalitatea ziurtatzen duena

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

agirresarobe **ARKITEKTURA**
OBRA ETA PROIEKTUAK

ETXEBIZITZA ETA LOCALEN ERREFORMA PROIEKTUAK;
GARAIA ETA TOLATUEN OLABERRITZE PROIEKTUAK; ISOLAZIOAK
DARRA ZUZENDARITZAK, INFORMAZIO BERRIDIA KODERDIAKONTZA

OBRA BERRIKEN PROIEKTUAK, BIZITZITZA, LURRAN BURUAKETA

BONIA ARKITEKTURAREN LURRAN, ARKITEKTURA
MUNIBIDE D. G. BULEGOA, ZARAUZ
TEL: 943 83 11 92

ALTXERRI *Karia enberritua*

*Asteburuak, eguerdi eta gauean,
menu bereziak*

943830762

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Barra Gordin Telera 13-16
ORO
943 83 38 75

 **ACTIVA**  **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

ALBIZU, J. - TEL/FAX: 943 83 12 49
20829 ORO

 **AMILIBIA**
ONTZIGILAK, S. L.

karri pertsona praktikoki
eta inoiz ezinak

gaiturak eta kateak
arabiarrenak

Olasoaga, 2. auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

 **Azkue**

Tf: 943 13 04 38

egunero-egunero,
zuekin...

www.karkara.com

Konektatuai!

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

edariategia

ANTILLA
jatelekua

Miraflores kalea 23 - TEL: 943 83 23 00

Alustiza Autobusak
Autobusak eta Bidalak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80 • Mugikorra: 656 78 40 01 / 656 78 29 99

ARISTERRAZU
jatelekua

Andatza auzoa - AIA
Tel. 943 83 45 21

 **IKUSI**
aurrigo arropa kolezioak
eta birloak

 **ardatzaboutique.com**

ARIDATZA *modos*

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

Automóviles ZARAUTZ

CI. POZUELA, 20, 48100 BILBAO

19.000.000k
mil le BOTTE
403

ZARAUTZ: TEL: 943 13 13 50

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarako mundialak

ARISTARRI KALEA, 11
Tel: 943 83 16 87

bodegasERRASTI, S. L.



Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina,
Ilagares, ardo gurria nafarra
Bodegas Gallur, Senorio de Laurgain
Gallur eta Arcañdegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 40. ORO • 943 83 03 88 / 83 50 53 • E-posta: bodegaerrasti@euskaltel.net

» HANDIK ETA HEMENDIK



Argi neukan bakarra, margotzea nahi nuela zen. Niretzat berebiziko garrantzia du arteak. Egun, askotan galdetzen didate, *Artista figuratiboa ala eskultorea da Manterola?*

Bilakatzen dabilen artista naiz ni. Egonezina eta umiltasuna, guztiaren batura da. Ez dut ildo bat hartu eta saltzeagatik saltzerik nahi.”

Iñigo Manterola, artista, *El País*, 2011ko apirilaren 28a.

» OSPAKIZUNA



Elorri bedeinkatzea San Martinen

Santa Kruz maiatzeko, gure soroak laiatzeko dio esaerak eta larreak ekaitzetik babesteko elorri bedeinkatua baliatzen zen baserrietan. Ohitura jarraituz Gurutze Santuaren egunez, maiatzaren 3an, eskuetan hartuta elorriak bedeinkatu zituzten oriotarrek San Martinen *piztueraren eta biziaren ezaugarri*, apaizaren esanetan, *neguko ilunaren ondoren udaberria, kristaudentzat pazkotik datorren bizia loratzen delako*.

» ZORIONAK!

Errikotxiako lan taldeari

Lan asko ari da egiten azken urteetan Errikotxia bertsozale elkar-tea. Hainbat bertso saio antolatzeaz gain, aurten, besteak beste, 2. Taldekako Orioko Bertsolari Txapelketa antolatu dute, bertso eskolan ibiltzen diren ikasleei plazan aritzeko aukera emanez.

Horretaz gain, Gipuzkoako Txapelketan presentzia handia izango du Oriok beren lanari esker. Txapelketaren aurkezpena egin zuten maiatzaren 4an gurean eta kanporaketa izango dugu igande honetan bertan, maiatzaren 8an. Bertan Errikotxiakoak arituko dira lanean, bai taulan, zein taulapean. Lau bertsolari jendaurrean eta hainbat bolondres eta langile atzetik, bejondeizuela!

3B
INFORMATIKA-ZERBITZUAK
680 997 600
lsb@informatika3b.com
t/f/fax: 943 536 505
www.informatika3b.com
Joan Barbany

943 83 09 86
KOASTA
Wifi zerbitzua
Kopak, gero giro aparta...

azkue
karrozeria
Ubegun Industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
T/f/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

le apaxandegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - Ixjo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Restaurante **Sega** BOKIATZE
943 83 22 29
Santoro

Antxoa gutxi eta arrantza denboraldi oso txarra

Duela 25 urte 1986ko maiatza

Arrantzak, nola ez, beti eman izan du zeresana Orion; bai orain eta baita orain dela 25 urte ere.

Maiatza hasi orduko antxoa azaldu eta harrapatzen hasi ziren orduan, antxoa dezente, itsasontzi bakoitzak 6-7 tona. Giroa hobetzearekin batera, arrantzaleen egoerak ere hobera egingo zuela uste izan zen eta sanpedrotara arte horrelajarraraituko zutela.

Usteak erdiak ustel, ordea. Maiatzeko lehen astea igaro eta itsasontziak, arrantzatzeko asmoz, lehen baino urrutiago joan arren, Kantauriko marinel guztiek bezala oriotarrek ere ez zuten berri onik ekarri.

(1985)

Denboraldi hasieratik gutxi arrantzatzearren arrazoia eguraldi txarrari egotzi zioten, baina, eguraldiak hobera egin arren, antxoarik ez zen ikusten eta kofradiatik ere egoerari ez zioten aldatzeko itxurarik hartzen. Asko jota, 2.500 kilo ekarri zituen ontzi bateko bestek.

Egoera hain zen larria, entzun zen ostiral batean, porturatu eta igandean berriz ere

itsasoratuko zirela Asturias aldera, han antxoa gehiago zegoelakoan, nahiz eta hori ezohikoa izan. Zinegotzien bileraren ondoren irteera atzeratzea erabaki zuten. Lehenago edo beranduago itsasoratu, arrantza denboraldia eskasa izan zen maiatzean.

Hondartzako sarrera igo

Arrantza itsaso barrenean eta ertzean hondartza. Hondartzara autoz joateko aparkalekua ordaindu behar eta Udalean prezioen igoera onartu zuten Iribar eta Itxaso zinegotziak ados ez egon arren. Egun guztirako txartela 100etik 200 pezetara igo zuten; eta arratsaldekoa 100etik 120ra. Aparkalekuen bonoak: kanpotarrentzat 2.000tik 2.500era eta kanpogan bizi ziren herritarrentzat 500etik 700era.

Hondartzatik irten arren, Orion uretatik ezin atera. Orioko arraunlariek lortu zituzten hainbat garaipe orain dela 25 urteko maiatzean ere. Mequinenzan, Zaragozan, jokatutako estropadetan hartu zuten parte eta Espainiako klubik onenak bertan ziren arren, Oriotik joandako ontzi gehienek finaletan sartzea lortu zuten. Finalean sartu ez ezik, Sarasua oriotarrak Espainiako selekzioarekin garaipea ere lortu zuen biko ontzian. Kaikun ari zen Korta bigarren izan zen skifean.

Kirol instalazioak

Maiatzaren amaieran jakinarazi zuten Gipuzkoak 6.000 milioi pezeta inbertituko zituela, bost urtetan, kirol instalazioetan. Kopuru horretatik zati bat Aian igerilekuak amaitzera eta, Orion, arraun klubeko bidea, gimnasioa, arraun hobia, arraun kluba amaitu eta frontoia egiteko bideratuko zituztela.

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultateak Jorge Oteizari eskainitako IV. Antropologia Astea antolatatu zuen

Donostiako Kontserbatorioko Orkestrarekin arituzen Xabier Lizaso pianojolea Orion

Kulturekitaldiak

Kiroletik kulturara. IV. Euskal Antropologia Astea Jorge Oteizari eskaini baitzioten Bere obra ztertu zuten, batik bat mitologia nola hausnartzen eta bere lan artistikoa gauzatzeko zein iturri mitotatik edaten zuen ikusiz.

Oteiza artista, baina kulturaren, musikan, bazen beste artistarik Orion. Xabier Lizaso pianojoleak artista dohainak erakutsi zituen Donostiako kontserbatorioko Orkestrarekin herrian.

IRATI AGIRREAZALDEGI

» JAIOTAKOAK

- Maddi Arruti Gabirondo, Orion, apirilaren 17an
- Auritz Amenabar Solabarieta, Orion, apirilaren 17an.


» EZKONDUTAKOAK

- Erik Armando Maradiaga Pastor eta Idalia Marina Arroyo Peña, Orion, apirilaren 14an.
- Kizkitza Gurrutxaga Etxeberria eta Aritz Huegun Esnal, martxoaren 26an.

» HILDAKOAK

- Jexux Etxabe Etxabe, Aian, apirilaren 28an, 91 urte.
- Joxemari Zubizarreta Lertxundi, Orion, apirilaren 16an, 81 urte.

.....
 ..
 .. Eskela edo ..
 .. urteurreneko ..
 .. gogoangarria ..
 .. KARKARAN jarri nahi ..
 .. baduzu, deitu gure ..
 .. telefonora: ..
 .. **943 83 15 27** ..



SOLOZABAL
 autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk.
 telefon: 943 83 05 12

URANGA
 burdindegia

Opari, menaje eta erremuntak

fer. uranga@euskalnet.net
 telefon: 943 831236 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69

Ilustrazioa: A. ZUBIZARRETA

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
 GASA, BAINU, ERAKJSKETA

estilo berria

Ogitartekoa:
 Plater konbinatuak
 Etxeko janaria
 Pintxoak

943 13 13 12
 Aitor eta Gorka



M. NOGUEIRA

“Sambodromoko esperientzia hitzekin azaltzea ezinezkoa da”

Monique Nogueira

Samba dantzaria

6 urte daramatza Moniquek Orion bizitzen. Rio de Janeirokoa da, eta hango sambodromo ezagunean saria eskuratu du, azken inauterietan, auzoko dantza taldearekin. Dantzariak bizi duena ezin dela hitzekin esan kontatu digu, baina saiatu da

IKER GURRUTXAGA

Nire lore ederra, Erregeari – Roberto Carlosi – buruz hitz egitean dugun poza eta alaitasuna ateratzeko ordua iritsi da, baita munduari sinpletasun hori adierazteko garaia ere. Hori izan zen Moniquek eta bere dantzataldeak sambodromoan erabilitako abestiaren leloa.

Nolako izaten da Rioko inauterian dantzatzaren esperientzia?

Ez da batere erraza hitzekin halako emozioa adieraztea. Milaka lagun izaten dira inguruan, eta gure dantza konpainian ere bai. *Beija-flor* da konpainiaren

izena eta 5.000 inguru dantzari eta abeslarik hartu du parte desfilean.

Lehen aldia al da irabazten duzuna?

Bai, halaxe izan da niretzat. Bost urte ziren ez nuela parte hartzen eta izugarria izan da itzuli bezain pronto irabaztea. Dena den, gure eskolak azken bost edizioetatik 4 irabazi ditu.

Prestaketa luzea eta garestia izango da.

Nire kasuan prestaketa ez da hain luzea izan. Konpainia hainbat taldetan banatzen da. Batzuk koreografiak egiten dituzte, beste batzuk berriz librean aritzen dira. Ni, orainoan, librean aritun naiz eta, ondorioz, prestaketa laburra

izan dut. Baina besteak urritik hasten dira dantza prestatzen.

Garestia ere bada, hiruzpalau milioi erreal –1,2 milioi inguru euro– kostatzen zaigu desfilea.

“Herrian bada batukada talde txukuna, eta haiekin elkarlanean dantza taldea osatzea, polita litzateke”

“Prestaketa luzea eta garestia izaten da inauteriko desfilerako”

Eta nola eskuratzen da hainbeste diru?

Bada, entseguetan jendeari ikusteko aukera ematen diogu, beti ere sarrera kobratuz. Bertan, gainera, edariak zerbitzaten dira eta horiekin ere etekina lortzen dugu. Horrez gain, saria eskuratzen bada...

Datorren urtean berriz ere han izango al zara dantzatzen?

Bai, bertan izatea espero dut. Eta orduan nire senarrarekin joango naiz desfilera. Euskalduna izanik ez zaio erraza egiten dantzatzea, baina badago astia ikasteko. Hori bai, kanpotarra denez, plus bat ordaindu beharko du desfilatu ahal izateko.

Orion dantza eskola bat noiz?

Gure artean askotan aipatzen dugun zerbait da, baina hortxe geratzen da, ideia bezala. Batukada ere bada Orion, oso txukuna gainera, eta haiekin elkarlanean zerbait egitea polita litzateke.

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ Garaje itxia salgai Ibai Ondon. 21,70 metro koadro; 3 metroko altuera. 45.000 euro. Interesatuak 627 638 776 telefono zenbakira dei dezakete.
 ■ Garaje itxia salgai Mendi beltz futbol zelaiaren azpian. 20,67 metro koadro. Telefono zenbakiak: 646 28 99 07/630 37 0138.
 ■ Volkswagen California salgai, 18.000 eurotan. 102 zp-2500cc. 2000 urtekoa. 242.000 km. Bidaia-tzeko prestatuta dago, besteak beste, bi ohe eta hozkailua ditu. Tf: 658 72 32 33.

Erosteke

■ Si bemoleko trikitixa erosiko nuke, egoera onean dagoena. 4 ahotsekoa izan

behar luke, gainera. Salduko lidakeenak dei dezala, mesedez, 652 73 51 41 telefono zenbakira.

Errenta

■ Gela bat alokatuko nioke etxea partekatu nahi duenari. Tf: 664 24 78 88.
 ■ Etxea partekatuko nuke bakarrik edo laguntza beharrean dagoen emakume batekin. Tf: 695 63 96 04.
 ■ Orion errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. Dei ezazu 676 28 25 88 telefono zenbakira edo, lan orduetan, 943 83 15 18 telefono zenbakira.
 ■ Bi gelako etxebizitza emango nuke errentan Orion. Interesatuak deitu 610 55 45 85 telefonora.

Lan eskaerak

■ Edozein motako lana egingo nuke, goizez nahiz arratsalde. Josue. Tf: 609 77 78 94.
 ■ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsalde. Eskarmentua daukat. Interesatuak deitu 679 85 23 41 telefono zenbakira.
 ■ Desbrozadorekin lursailak garbitzen ditut. Prezio oneko zerbitzu txukuna. Tf: 697 75 01 96.
 ■ Neska arduratsuak etxeak garbitu edo edadetuak zainduko litzuzke. Eskarmentua badauka. Deitu 600 74 56 86 telefono zenbakira.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
6	05:04 eta 17:15	11:04 eta 23:32	☾
7	05:43 eta 17:55	11:42 eta _____	☾
8	06:27 eta 18:43	00:15 eta 12:26	☾
9	07:22 eta 19:42	01:05 eta 13:20	☾
10	08:33 eta 20:57	02:07 eta 14:27	☾
11	09:53 eta 22:16	03:20 eta 15:44	☾
12	11:08 eta 23:28	04:37 eta 17:00	☾
13	_____ eta 12:10	05:45 eta 18:04	☾
14	00:29 eta 13:03	06:43 eta 19:00	☾
15	01:23 eta 13:51	07:33 eta 19:51	☾
16	02:14 eta 14:36	08:20 eta 20:39	☾
17	03:02 eta 15:21	09:06 eta 21:27	☾
18	03:49 eta 16:06	09:50 eta 22:14	☾
19	04:35 eta 16:51	10:35 eta 23:02	☾
20	05:22 eta 17:37	11:20 eta 23:50	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA	Azaldegia
■ 6an, Zulaika.	943133183 Zarautz
■ 7an eta 8an, Iriarte.	■ Barreneitea: Gipuzkoakalea, 17 943832398 Zarautz
■ 9an, Barreneitea.	■ Mutiozabal: Kale Nagusia, 12 943832970 Zarautz
■ 10an, Gallo.	■ Larrañaga: S. Frantzisko, 16 943133814 Zarautz
■ 11ean, Azaldegia.	■ Lasa: Herriko plaza. 943830936 Orrio
■ 12ean, Zulaika.	■ Gallo: Zigorria kalea, 17 943134019 Zarautz
■ 13an, Iriarte.	■ Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
■ 14an eta 15ean, Larrañaga.	■ Zulaika: Bizkaia kalea, 41 943133994 Zarautz
■ 16an, Gallo.	
■ 17an, Azaldegia.	
■ 18an, Zulaika.	
■ 19an, Iriarte.	
■ 20an, Larrañaga.	

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:25	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
Orio	8:35	9:35	10:35	11:35	12:35	13:35	14:35	15:35	16:35	17:35	18:35	19:35	20:35	21:35	22:35	23:05
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	23:15	

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
Orio	6:55	7:55	8:55	9:55	10:55	11:55	12:55	13:55	14:55	15:55	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira

Orio

Pala txapelketa

- Maiatzaren 6an, 4. jardunaldia jokatu da. 18:00etatik aurrera, honako partidak izango dira:
- Iker Zumeta-Ibai Manterola/Ritxi Uzkudun-Garikoitz Erkizia
- Josu Galdos-Iñaki Iturain/Eneko Etxabe-Iñigo Tapia
- Xabier Etxeberria-Jabier Erquilla/Unai Illarramendi-Ibon Berasaluze
- Juan Antonio Priego-Urko Sagastibeltza/Haritz Jauregi-Axier Solaberrieta

Erakusketak

- Saioa Canoren *Herri Arrantzale* argazki erakusketa, maiatzaren 2tik 2Ora, Kultur Etxean. Astelehenetik ostiralera 10:30-13:00 eta 16:30-20:00.

■ Fernando Ortiz de Ginearen *Balea* erakusketa. Salatxon, maiatzaren 14a arte.

Ikastaroak

- Patinaje ikastaroa, larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara, frontoian.
- Defentsa pertsonaleko ikastaroa. Apirilaren 30ean eta maiatzaren 7an, Kosta Taillerean. Izena emateko: 649 87 92 09/ 639 75 14 13.

Musika

- Maiatzaren 13an, 22:30ean, Kalakari Tabernan, Mikel Garate bakarlarria eta Mahaster Riverren Orioko azken kontzertua.

Afaria

- Maiatzaren 28an, 72an jaiotako afaria, Galerna jatetxean. Izena emateko Arkaitz tabernan edo 943 86 25 17 telefonoan.

Erreboiloaren jaia

- Maiatzaren 6an eta 7an, aforiak eta bazkaria. Lekua hartzeko, 943 83 09 04 telefono zenbakira deitu edo turismoa@oriokoudala.com helbidera idatzi. Prezioa otorduko: 45 euro.
- Bestelako produktuak salgai maiatzaren 6an eta 7an: olagarroa, taloa, txangurro izpitua, bakailoa...

Bertsoak

- Maiatzaren 8an, Ikastolako Aretoan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehenengo kanporaketa. Goizeko saioa 11:30ean eta arratsaldeko saioa 17:30ean.

Futbola

- Maiatzaren 7an, 18:00etan, emakumezkoen Jubenilen Txapel dunen fasean, Oriolazkao.
- Maiatzaren 7an, 16:00etan,

gizonezkoen Jubenilen Lehen mailako igoera fasean, Oriol-Ikasberri.

- Maiatzaren 15ean, gizonezkoen Gorengoen mailan, Oriol-Amaiak Bat.
- Maiatzaren 15ean, gizonezkoen Kadeteen Lehen mailako igoera fasean, Oriol-Lengokoak B.
- Maiatzaren 15ean, gizonezkoen Infantilen Ohorezko mailako kopan, Oriol-Elgoibar.

Aia

Silo-bolak

- Maiatzaren 10ean, silo-bolen bilketa. Zerbitzuari buruzko informazioa: 943 81 65 00 (Urkome)/660 04 97 51 (Igor).

Podologia

- Maiatzaren 14an. Ordua hartzeko deitu 943 13 11 44ra.



bilduorioherria

aldaketa behar du gure herriak

goazen **zubiak** eraikitzen
pertsonatik pertsonara



ONIENNA EIMATTEKO GARAIJA



Telefono: 943 89 07 89 Emaila: eai-pnv.orio@euskalnet.net
www.facebook.com/ORIO.EAI.PNV
twitter.com/oriokeajpnv

Orrio

